



NEGOZIAZIO MAHAIAN PATRONALAK ERAQINDAKO BLOKEOAK BIZKAIKO AUTOESKOLEN SEKTOREA GREBARA BULTZATU DU

**CCOOirakaskuntzak, ELA sindikatuarekin batera,
GREBA EQUNAK deitu ditu uztailaren 8, 16 eta
21erako**

Negoziazio mahaia zazpi aldiz bildu da inolako aurrerapenik gabe, eta, horren ondorioz, Bizkaiko autoeskoletako langileek greba dinamika hasteko erabakia hartu dute.

APAVI patronalaren jarrera ikusita, kolektibo horren eskaerei erantzuteko benetako edukirik ez baitu, **CCOOirakaskuntza eta ELA sindikatuek greba deitu dute uztailaren 8, 16 eta 21erako**.

Esan behar da patronalaren proposamenak ez duela jasotzen soldatak KPIaren arabera egunereztea, eta ez duela inolako neurririk kontuan hartzen irakasleen lanaldia murritzeko, hori baita sektorearen aldarrikapen nagusietako bat. Administrazioko langileentzat, lanaldia murritzeko proposamen bat egiten da, argi eta garbi nahikoa ez dena, eta egungo lan-kargei eta kontziliazio-premiei erantzuten ez diena.

Esan bezala, APAVIren soldata-proposamena KPIaren azpitik dago: % 2,5eko igoera aurreikusten du 2025erako, eta horrek erosahalmenaren % 1,leko galera ekarriko luke 2024ko KPIarekiko (% 3,6). Bestalde, ez da inolako neurririk eskaini lan-karga arintzeko, ez eta kontziliazioaren eta berdintasunaren esparruetan aurrera egiteko ere.

Bizkaiko autoeskoletako langileek nabarmendu nahi dute grebara jo behar izatea nahitaezko neurria dela patronalaren borondate faltaren aurrean. Egoera bideratzeko benetako proposamenik ezean, lan-baldintza duinen, soldata justuen eta lanaldi oreaktuen aldarrikapena greba-egunetara eta mobilizazioetara eramango dute.





2025/07/03

PRIVADA
Autoescuelas de Bizkaia

EL BLOQUEO PATRONAL DE LA MESA DE NEGOCIACIÓN EMPUJA A LA HUELGA AL SECTOR DE AUTOESCUELAS DE BIZKAIA

CCOOirakaskuntza convoca, junto al sindicato ELA, jornadas de HUELGA para los días 8, 16 y 21 de julio

Después de siete sesiones de la mesa de negociación sin ningún avance, la situación ha llevado a las y los trabajadores de las Autoescuelas de Bizkaia a tomar la decisión de iniciar una dinámica de huelga.

Ante la actitud de la patronal APAVI, cuya propuesta carece del más mínimo contenido real para responder a las demandas de este colectivo, las organizaciones sindicales **CCOOirakaskuntza** y ELA han convocado jornadas de **huelga para los días 8, 16 y 21 de julio**.

Hay que decir que la propuesta de la patronal no contempla la actualización salarial conforme al IPC ni incluye medida alguna para la reducción de jornada del profesorado, que es una de las principales reivindicaciones del sector. Para el personal administrativo, se hace una propuesta de reducción de jornada claramente insuficiente, que no da respuesta ni a las actuales cargas de trabajo ni a las necesidades de conciliación.

Como se ha dicho, la propuesta salarial de APAVI está por debajo del IPC: contempla un incremento del 2,5% para 2025, lo que supondría de entrada una pérdida del 1,1% en el poder adquisitivo respecto al IPC de 2024 (3,6%). Por otra parte además, no se ha ofrecido ninguna medida para aliviar la carga laboral ni, tampoco, para avanzar en el ámbito de la conciliación ni en el de la igualdad.

Las y los trabajadores de las Autoescuelas de Bizkaia quieren resaltar que tener que recurrir a la huelga es una medida obligada ante la falta de voluntad de la patronal. En ausencia de propuestas reales que encauzen la situación, trasladarán la reivindicación de condiciones laborales dignas, salarios justos y jornadas equilibradas a las jornadas de huelga y a las movilizaciones.

CCOO-IRAKASKUNTZA

